

## Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak % 4,3 gehitu ziren 2007ko lehenengo hiruhilekoan

**Bizkaian % 5,7 gehitu dira, batez bestekoaren gainetik; aldiz, Araban (% 1,2) eta Gipuzkoan (% 3,1) gehikuntza neurrizkoagoa izan da.**

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak % 4,3an igo zituen 2007ko lehenengo hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, % 3,0koa, termino errealetan.

### Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

| Urtea | Hiruhilekoa | Txikizkakoa | Espezializatua | Ez-espezializ.<br>(Azal. Ertain eta handiak) |
|-------|-------------|-------------|----------------|----------------------------------------------|
| 2005  | I           | 1,6         | 2,9            | -1,0                                         |
|       | II          | 2,8         | 2,8            | 2,8                                          |
|       | III         | 1,7         | 2,7            | -0,3                                         |
|       | IV          | 0,4         | 0,4            | 0,3                                          |
| 2006  | I           | 4,7         | 7,1            | -0,5                                         |
|       | II          | 2,2         | 4,0            | -1,6                                         |
|       | III         | 4,4         | 7,2            | -1,2                                         |
|       | IV          | 0,4         | 1,4            | -1,7                                         |
| 2007  | I           | 3,0         | 3,3            | 2,3                                          |

### Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuak salmenta nominalak % 4,3an igo zituen 2007ko lehenengo hiruhilekoan, 2006ko denboraldi beraren aldean. Hazkunde nominal hau urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, % 3,3koa, termino errealetan.

Txikizkako merkataritza espezializatu gabea % 4,3 igo da aurtengo lehenengo hiruhilekoan, termino nominaletan. Urte arteko tasa errealaren aldakuntza % 2,3koa da, 2006ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena elikaduraren sektoreari dagokio. % 6,4ko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, % 2,7koa. Etxearen hornikuntzako ondasunek ere hazkunde nabarmena izan dute; horien hazkundera % 5,3koa izan da termino nominaletan; tasa hori, termino errealetan, % 4,0koa da (positiboa hau ere). Pertsonen hornikuntzarako produktuen salmentak % 3,9 gehitu dira euro arruntetan; termino errealetan, hazkundera % 2,9koa izan da. Beste alde batetik, Bestelako Kontsumo Ondasunen partidak

(kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) % 3,2ko hazkunde nominala izan du; produktu horien prezioen deflazio-efektuaren ondorioz, ordea, termino errealetan, tasa hori % 3,5 bihurtu da.

Lurralde historikoetan, 2007ko lehenengo hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Bizkaian izan da hazkunderik handiena, % 5,7ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak % 7,0 hazi dira, eta espezializatu gabekoarenak % 3,3.

Gipuzkoak tarteko lurralde-bilakaera izan du (% 3,1); merkataritza espezializatuko salmentak % 0,9 hazi dira eta espezializatu gabekoarenak % 8,0.

Arabian izan da txikizkako sektoreko urte arteko salmenten gehikuntzarik txikiena (% 1,2), txikizkako merkataritza espezializatuaren gehikuntza % 1,3koa eta espezializatu gabekoarena % 1,0koa, betiere, urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera % 0,6 izan da, aurreko urteko lehenengo hiruhilekoaren batez bestekoaren aldean. Lurraldeka honelakoa izan da: Bizkaian % 0,9 murriztu da eta Araban eta Gipuzkoan % 1,2 eta % 2,9 hazi da, hurrenez hurren. Alabaina, 2007ko lehenengo hiruhilekoan, txikizkako merkataritzako sektore honetako langile okupatuen kopurua % 1,4 murriztu da aurreko hiruhilekoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoan.

---

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

*Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)*

*Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja*

*Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01*

*Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)*

*Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)*